Getxo
ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA
bizi ezazu

# MED
Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 12
Urtea/Año 2012
Abendua/Diciembre

## ENTREGA DE INFORMES PEDAGÓGICOS CORRESPONDIENTES A LA PRIMERA EVALUACIÓN

*La evaluación es fundamental para nosotros, pues nos permite realizar esa parada en el proceso de enseñanza para valorar lo aprendido y proponer pautas y herramientas para mejorar, en los casos que así sea necesario. Los informes pedagógicos correspondientes a este primer trimestre os los entregará vuestro tutor o tutora entre el 14 y el 21 de diciembre.*

## Recordatorios

Os recordamos que el día 21 es el día en el que finalizaremos las clases.
También es festivo el 6 de diciembre. Volvemos el 7 de enero.

## COLABORACIÓN CON LA CORAL ONDARRETA

La Coral Ondarreta va a ofrecer dos conciertos navideños. Serán el día 20 en la Iglesia del Redentor de Algorta y el 27 en la Iglesia de Santa Ana de Las Arenas, a las 8 de la tarde. Colaboramos con ellos con un grupo de 30 alumnos. Estamos muy contentos de ello y os animamos a escucharles.

## CERTAMEN DE ACORDEONES DE ARRASATE

De nuevo este año tendremos representación en el Certamen de Acordeones de Arrasate los próximos 7, 8 y 9 de diciembre. De la mano de Rafa, nuestro profesor de acordeón, Kepa Bordegarai y Joanes Atxa participarán en este certamen. Mucha suerte a los dos.

## EL ÁRBOL SOLIDARIO

Nuestro árbol de Navidad de este año está ya encendido. Lo hicimos en el recital de Santa Cecilia. Parece el mismo de siempre, pero no es así. Lo hace diferente el gesto de solidaridad que, en forma de alimentos, pañales... os invitamos a dejar en él, para que, a través de Sortarazi, una Organización sin Ánimo de Lucro que trabaja con personas en situación de exclusión social en Getxo, Leioa y Bilbao, familias que tenemos cerca se sientan más arropadas esta Navidad. Muchos de vosotros habéis dado comienzo a este gesto solidario. El árbol estará encendido hasta el 21 de diciembre.
Animaos.



## V. NEGUKO BIDAIA

Os ampliaremos la noticia en el próximo número. Recordaros que el V. Neguko Bidaia está en la recta de salida, que comienza el próximo 12 de enero, sábado, prolongándose hasta el 9 de febrero. Nuestros conciertos-coloquio son un exitazo. ¡Contamos con vosotros!

## "ANDRÉS ISASI" MUSIKA ESKOLA. ¡APRENDE UN NUEVO IDIOMA!

Llega el final de trimestre. Algunos nos han tenido que dejar; problemas con la compatibilidad de los horarios, otras actividades a las que también les tienen que dedicar un tiempo... Seguro que conocéis personas interesadas en estudiar música, o algún instrumento musical. Tenemos plazas disponibles en: flauta, saxofón, percusión, violín, viola, violoncello, acordeón, txistu, pandero y alboka.

## IV GALA IZARREN DISTIRA

También se apellida Bordegarai, como el de la izquierda, pero se llama Pello quien, junto a Mikel Martínez, alumnos los dos de trompeta de nuestra Escuela, pertenecen al grupo de seis alumnos de 12 años de la Ikastola San Nikolas que han resultado ganadores de la IV Gala Izarren Distira. Zorionak a los dos, y también al resto de compañeros con los que habéis conseguido el premio. ¡A disfrutarlo y seguir triunfando!

## Agenda

### Diciembre (algo prieta)

**1 de diciembre:** Concierto de la Banda y txistularis de la Escuela de Música en las XIV Jornadas de la Cultura Vasca. Auditorio de la Musika Eskola. 19:30 horas.
**3 de diciembre:** Concierto Didáctico de Jazz. A las 10:45 para los centros escolares. A las 18:00 para los alumnos de la Escuela de Música y público en general.
**10 de diciembre:** Recital de piano; alumnos de Pía Rojas. Capilla del Colegio Madre del Divino Pastor. 19:00 horas.
**11 de diciembre:** Recital de piano; alumnos de Luminita Duca. Capilla del Colegio Madre del Divino Pastor. 18:00 horas.
**12 de diciembre:** Recital del Coro Ibar. Residencia de Sanitas. 17:30 horas.
**13 de diciembre:** Recital de piano; alumnos de Luminita Duca. Capilla del Colegio Madre del Divino Pastor. 18:00 horas.
**14 de diciembre:** Recital de Navidad. Alumnos de flauta de Mario Clavell. Auditorio de la Musika Eskola. 19:00 horas.
**17 de diciembre:** Recital del Coro Ibar. Residencia del Sdo. Corazón. 17:30 horas.
**18 de diciembre:** Recital de Navidad. Alumnos del Centro. Auditorio de la Musika Eskola. 18:15 horas.
**19 de diciembre:** Recital del Coro Ibar. Nagusien Etxea de Romo. 18:00 horas.
**19 de diciembre:** Recital de Navidad. Alumnos del Centro. Auditorio de la Musika Eskola. 18:15 horas.
**19 de diciembre:** Concierto de la Banda de la Escuela de Música. Iglesia del Redentor de Algorta. 19:00 horas.
**20 de diciembre:** Participación de alumnos de Lenguaje Musical en el Concierto de Navidad de la Coral Ondarreta. Iglesia del Redentor de Algorta. 20:00 horas.
**20 de diciembre:** Recital de Navidad. Alumnos del Centro. Auditorio de la Musika Eskola. 18:15 horas.
**20 de diciembre:** Recital de Navidad. Alumnos del Centro. Auditorio de la Musika Eskola. 19:30 horas.
**21 de diciembre:** Día de Santo Tomás. Participaremos con alumnos de Raíz Tradicional en The Pub Ibiltaria de Oskorri.
**22 de diciembre:** Participación del Coro "Andrés Isasi" en el Festival de Villancicos de Derio. 20:00 horas.
**23 de diciembre:** Coro "Andrés Isasi". Misa cantada y posterior concierto. Colegiata de Zenarruza. 12:00 horas.
**24 de diciembre:** Cabalgata de Olentzero por las calles de Algorta. Alumnos de txistu.
**25 de Diciembre:** Kalejira de alumnos de txistu por Algorta hasta la Residencia Municipal. 11:30 horas.
**27 de diciembre:** Participación de alumnos de Lenguaje Musical en el Concierto de Navidad de la Coral Ondarreta. Iglesia de Santa Ana de Las Arenas. 20:00 horas.
**28 de Diciembre:** Kalejira a mediodía por Getxo de la fanfarria Korapilo.

Getxo
ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA
bizi ezazu

MED
Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 12
Urtea/Año 2012
Abendua/Diciembre

*Ebaluazioa funtsezkoa da guretzat, irakaskuntza-prozesuan ikasitakoa baloratzeko geldialdia egiteko eta, beharrezkoa den kasuetan, hobetzeko jarraibide eta tresnak proposatzeko aukera ematen baitigu. Lehen hiruhileko honi dagozkion txosten pedagogikoak, zuen tutoreak emango dizkizue abenduaren 14a eta 21a bitartean.*

## Oroigarriak

21a izango dela azken eskola-eguna gogoraratzen dizuegu. Abenduaren 6a ere jai-eguna da. Urtarrilaren 7an itzuliko gara.

## ELKARLANEAN ONDARRETA ABESBATZAREKIN

Ondarreta Abesbatzak bi Gabon-kontzertu eskainiko ditu. Abenduaren 20an Algortako Salbatzailearen elizan eta 27an Areetako Santa Ana elizan izango dira, arratsaldeko 8etan. 30 ikaslek osatutako taldearekin lagunduko dugu. Oso pozik gaude aukera honekin eta entzutera joan zaitezten animatzen zaituztegu.

## ARRASATEKO AKORDEOI-LEHIAKETA

Aurten ere, ordezkariak izango ditugu Arrasateko akordeoi-lehiaketan, datozen abenduak 7, 8 eta 9an. Gure akordeoi-irakaslea den Rafaren eskutik, Kepa Bordegaraik eta Joanes Atxak parte hartuko dute lehiaketa honetan. Zorte ona bioi.

## ZUHAITZ SOLIDARIOA

Dagoeneko piztuta dago geure aurtengo Gabon-zuhaitza. Santa Zezilia eguneko errezitaldian piztu genuen. Ohikoa dela ematen du, baina ez da hala. Solidaritate-jardunbideak egiten du desberdin; elikagaiak, pixohialak… bertan uztera gonbidatzen zaituztegu, Getxon, Leioan eta Bilbon gizarte-bazterkeria pairatzen duten pertsonen alde lan egiten duen Sortarazi irabazi-asmorik gabeko erakundearen bidez, oso hurbil ditugun familiak babestuago senti daitezen Eguberri honetan. Zuetako askok eman diozue hasiera jardunbide solidario honi. Zuhaitza abenduak 21a arte izango dugu piztuta.



Anima zaitezte.

## V. NEGUKO BIDAIA

Hurrengo zenbakian zehaztuko dizuegu berria. V. Neguko Bidaia irteera-lerroan dagoela gogorarazi nahi dizuegu; datorren urtarrilaren 12an, larunbata, hasi eta otsailaren 9a arte luzatuko da. Geure kontzertu-solasaldiak arrakasta hutsa dira.
Zure zain gaude!

## "ANDRÉS ISASI" MUSIKA ESKOLA, HIZKUNTZA BERRIA IKASI!

Hiruhilekoa amaitzear dago. Batzuk utzi egin behar izan gaituzte; ordutegien bateragarritasun-arazoak, denbora behar duten beste jarduera batzuk… Ziur musika edo tresnaren bat jotzen ikasi nahi duen norbait ezagutzen duzuela. Lekua dugu flauta, saxofoia, perkusioa, biolina, biola, biolontxeloa, akordeoia, txistua, panderoa eta alboka ikasteko.

## IV IZARREN DISTIRA GALA

Ezkerrekoak bezala, Bordegarai du abizena, baina Pello izena du Mikel Martinezekin batera, biak gure Eskolako tronpeta-ikasleak. IV Izarren Distira Gala irabazi duten San Nikolas ikastolako 12 urteko sei ikasleren taldearen parte direnak. Zorionak bioi, eta saria lortu duen taldearen beste lagunei ere. Gozatu eta jarraitu nagusitzen!

## Agenda

### Abendua (estu samarra)

**Abenduak 1:** Musika Eskolako Banda eta txistularien kontzertua Euskal Kulturaren XIV Jardunaldietan. Eskolako Aretoan. 19:30ean.
**Abenduak 3:** Jazz-kontzertu Didaktikoa. 10:45ean ikastetxeen ikasleentzako. 18:00etan Musika Eskolako ikasleentzat eta gainerako publikoarentzat.
**Abenduak 10:** Piano-errezitaldia; Pía Rojasen ikasleak. Madre del Divino Pastor ikastetxearen kaperan. 19:00etan.
**Abenduak 11:** Piano-errezitaldia; Luminita Ducaren ikasleak. Madre del Divino Pastor ikastetxearen kaperan. 18:00etan.
**Abenduak 12:** Ibar Abesbatzaren errezitaldia. Sanitasen Egoitzan. 17:30ean.
**Abenduak 13:** Piano-errezitaldia; Luminita Ducaren ikasleak. Madre del Divino Pastor ikastetxearen kaperan. 18:00etan.
**Abenduak 14:** Gabonetako emanaldia. Mario Clavellen flauta-ikasleak. Musika Eskolako Entzunaretoan. 19:00ean.
**Abenduak 17:** Ibar Abesbatzaren errezitaldia. Bihotz Santuaren Egoitzan. 17:30ean.
**Abenduak 18:** Gabonetako emanaldia. Zentroko ikasleak. Eskolako Aretoan. 18:15ean.
**Abenduak 19:** Ibar Abesbatzaren errezitaldia. Erromoko Nagusien Etxean. 18:00etan.
**Abenduak 19:** Gabonetako emanaldia. Zentroko ikasleak. Eskolako Aretoan. 18:15ean.
**Abenduak 19:** Gabonetako emanaldia. Zentroko ikasleak. Eskolako Aretoan. 19:30ean.
**Abenduak 19:** Musika Eskolako Bandaren kontzertua. Algortako Salbatzailearen elizan. 19:00etan.
**Abenduak 20:** Lengoaia Musikaleko ikasleen parte hartzea Ondarreta Abesbatzaren Gabon-kontzertuan. Algortako Salbatzailearen elizan. 20:00etan.
**Abenduak 20:** Gabonetako emanaldia. Zentroko ikasleak. Eskolako Aretoan. 18:15ean.
**Abenduak 20:** Gabonetako emanaldia. Zentroko ikasleak. Eskolako Aretoan. 19:30ean.
**Abenduak 21:** Santo Tomas eguna. Bertako tresnen ikasleen parte hartzea Oskorriren The Pub Ibiltarian.
**Abenduak 22:** "Andrés Isasi" Abesbatzaren parte hartzea Derioko Gabon-kanten Jaialdian. 20:00etan.
**Abenduak 23:** "Andrés Isasi" Abesbatza. Meza abestua eta ondoko kontzertua. Zenarruzako Kolegiatan. 12:00etan.
**Abenduak 24:** Olentzeroren desfilea Algortatik. Txistu-ikasleak.
**Abenduak 25:** Txistu-ikasleen Kalejira Algortatik Udal Egoitzaraino. 11:30ean.
**Abenduak 27:** Lengoaia Musikaleko ikasleen parte hartzea Ondarreta Abesbatzaren Gabon-kontzertuan. Areetako Santa Ana elizan. 20:00etan.
**Abenduak 28:** Korapilo fanfarrearen Kalejira eguerdian Getxotik.